

Hitzaurrea

Tantaka tantaka, 21. *Behinola* iritsi da. Honako tanta honek, aurreko guztiek bezala, atal ugari izango ditu.

Hitz eta pitzen editore, idazle eta ilustratzaile «beteranoak» eta «berriak» elkartu ditugu, 80ko hamarkadan haur eta gazte literaturan zegoen giroaren eta gaur egungoaren gainean solasteko.

MARI ELI ITUARTE (JOSU LEGUINAREKIN batera), Gero argitaletxekoa, eta ANTXIÑE MENDIZABAL, Elkar argitaletxekoa, izan dira aukeratu genituen editoreak. Idazle «beterano» gisa J. M. OLAIZOLA *Txilikuk* parte hartu zuen, eta LEIRE BILBAOK idazle «berri» moduan. Azkenik, ANTON OLARIAGA eta AITZIBER ALONSO ilustratzaileek ere parte hartu zuten.

Hitzontzi atalean INIGO ASTIZ nafarrak egindako zortzi poesia ekarri ditugu txoko honetara.

Hizpiden MIKEL AYERBEK eta IBON EGAÑAK iraganera bidaia egin dute; txikitan eta nerabeزارoan irakurritako haur eta gazte literatura esparruko liburuez mintzatuko zaizkigu. Halere, orainaldira buelta eginez, hausnarketa sakona egin ondoren, gaur egungo egoeraren berri emango digute.

Hitzorduan, 2009ko azaroaren 16tik 20ra Donostiako Arteleku Arte Garaikide gunean egin ziren I Ilustrazio Topaketen berri emango zaigu. Oso lan interesgarria burutu zen bertan, eta horren berri izateko artikulu hau dugu.

Liburu-uztari jarraipena egiten lagunduko diguten zenbait erreseina irakurtzeko beta izango dugu *Hitz beste* atalean.

Hitzatzea Ipupomamua telebistako lagunak burutu dute, eta bertan, programa egitearen esperientziaz hitz egingo digute. Bide batez, gure zorion beroena talde osoari, egindako lanagatik.

Bukatu baino lehen, goraiatu IRAIA OKINA ilustratzaileak egindako lana. Haren ilustrazioak irakurketan bide-lagun izatea plazera izango dela ziur gaude.

Gure eskerrik zintzoenak MIGEL ASIAIN erredakzio batzordeko kide ohiari; izan ere, zenbakiz zenbaki lan esker ga egin baitu *Behinola* aldizkarian.

Azkenik, ezin genezake hitzaurre hau bukatu aipamen berezia egin gabe, euskal haur eta gazte literaturan garrantzi handia izan duen pertsona batek berriki utzi gaitu eta. Beti gure bihotzetan egon zara JOXAN ORMAZABAL.

Berria egunkarian (2010-V-4) XABIER ETXANIZEK Joxani egin zion agurra gurera ekarri dugu.



«EDITOREA ETA LAGUNA

Gogoan dut 21 urte egin berriak nituela liburu baten itzulpenarekin hurbildu nintzela Elkar argitaletxera. Orduan pisu batean zeuden eta han gizon batek hartu ninduen. Itzulpen hark ez zuen aurrera egin baina orduan izan nuen lehenengo harremana Joxan Ormazabalekin eta modu batean edo bestean harreman horrek bizirik dirau oraindik.

Joxan nire editorea izan zen. Itzulpen haren ordez beste bat proposatu eta nik eramandako zirriborroetatik (pazientzia eta dedikazio handiz zuzendu eta hobetzen zituenak) hainbat liburu atera ziren. Joxanek eskutik heldu eta haur literaturaren bidean barneratu ninduen, bere komentario, ohar eta iradokizunei esker joan nintzen ulertzen zer den haurrentzat idaztea. Eta gaur egun naizenaren oinarria orduko lan hartan dago. Joxan editorea izan zen, liburu askoren atzean, idazle askoren lanaren atzean, isilik, oharkabean, apaltasunez lana egiten zuen editorea. Igarkizunak egin genituenean zenbat buelta ez ote genien eman igarkizun bakoitzari! Folioak oharrez beteak jaso eta berridatzi egiten nituen, baina lan isil horri esker hobetzen zen liburua.

Nirekin bezala beste ehunka idazlerekin egin du hori Joxanek 29 urtetan. Baina ez hori bakarrik, idazlanak hobetu, idazleari pistak eman nondik nora jo dezan, haurren mundura hurbil dadin... eta gainera sentsibiltate handiz. Pertsonekin, idazle eta irakurleekin, eta baita literaturarekin zuen sentsibiltate horrekin, editore izateaz gain Joxan idazlea ere badelako, eta itzultzailea.

Batzuek aipatuko dute musikarekiko edo bertsolaritzarekiko zuen maitasuna eta harremana, herrikoiak diren zenbat kanta idatzi dituen! Egongo da euskararen militantzia ere aipatuko duena, euskal kultura eta euskal literaturaren alde eginiko lan handia. Niretzat Joxan editorea izan da eta laguna. Duela 28 urte hasitako harremanak bizirik dirau, eta iraungo du bere obran baina baita ere bere eremuan, pertsona eremuan. Bere izaeran, baina baita idazlanetan ageri zen giza eredia:

«Edan ur garbia
bizitzaren iturritik.
Dastatu eguzkiaren argia
zauden lekutik.
Zoriontasuna dator
konturatu gabe zoriontsu izatetik».

Bart esku artean izan ditut *Ehun ipuin hitz gutxitan* hire azken liburua, Joxan; eta gaur ere irakurtzen jarraituko dut.»